

Garoñarekin moztu dut!!



Garoñarekin moztu



Txernobil: 200.000 hildako

Istripu hau gertatu zenean zentral nuklearrak itxi behar izan ziren mundu osoan. Kopuru ikaragarriak dira: 200.000 hildako, 97.000 hildako etorkizunean, 350.000 desplazatu, 180.000.000.000 \$ gorako galerak, milaka lagun malformazio eta minusbaliekin... [Txernobil](#)




Fukushima: 525.000.000.000 euroko galerak

Fukushimako istripuaren ondorioak ere oso larriak izan dira, batez ere Pazifikora etengabe isuri duten ur kutsatuagatik, baita kalte pertsonalengatik ere: 570 hildako orain arte eta 40.000 hildako etorkizunean, 163.000 desplazatu, etab. [Fukushima](#)



Garoña: Fukushima bezalakoa da

Fukushima bezalakoa da. Istripua eta gero, Belgikan, bi zentral berdinak itxiko dituzte, segurtasun faltagatik. Istripu larri bat gertatuz gero, Burgos, Bizkaia, Araba eta Ebro inguruko herriak, nekazaritza eta aberastasun guztia hondatu lirateke. [Garoña-ixteko-arrazoi-nagusiak](#)



Garoñatik zenbat kilometrotara bizi zara?

Araba: Gasteiz 43, Espejo 16, Lantaron 17, Amurrio 36, Laudio 46, Guardia 57.. **Errioxa:** Haro 37, Logroño 62...

Bizkaia: Bilbo 58 **Gipuzkoa:** Donostia 116 **Nafarroa:** Iruñea 129...

Burgos: Burgos 62, Frias 7, Trespaderne 14, Oña 16, Miranda 23



Ospa egin Iberdrola eta Endesatik!

Gure osasun, bizitza eta etorkizuna arriskutan jartzen ari dira bi enpresa hauek. Ez eman euro bat ere ez! Moztu zeure eta zeure seme-alaben kontra ari direnenekin!

Garoñarekin moztu dut!!



Nola egin portabilitatea

Telefonoa aldatzea baino errazagoa da, elektrizitatea eten egin gabe egiten delako. Egun batean hornitzaile berriaren faktura heltzen da eta kitto. [Faktura aztertu](#) | [Enpresak ikusi](#) | [Prezioak alderatu](#) | [Portabilitatea egin](#) | [Diploma eskatu eta ezagunak animatu](#) |



Bideoak, txostenak, alternatibak...

Informatu zaitez. Energia nuklearra ez da behar. Alemanian zentralak itxen ari dira, Japonian 48 zentral ere lau urtez itxita, Austriak, Italiak... herrialde askok agur esan diote energia nuklearrari. Hurrengoak guk?

www.garonarekinmoztu.net

Garoñarekin moztu berripapera

1. alea – 2015eko apirila - garonarenkontrakoforoa@gmail.com